



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2017.03.14an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ARETXABALETA
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA

ETORRI GABEAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
MARIA UBARRETXENA CID
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ANTZUOLA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko martxoaren 14an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2017ko otsailaren 14an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Foru Kontratazio Zentrala

Gas naturalez hornitzeko kontratazio espedientea; kontratuaren esleipena

Diputatuen Kontseiluaren 2016ko urriaren 4ko erabakiaren bidez onartu zen Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez gas naturalaren hornidura kontratatzeke esparru akordioa burutzeko kontratazio espedientea.

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazio Departamentuko foru diputatuak, 2016ko abenduaren 1eko foru aginduaren bitartez, aipatu esparru akordioa GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. enpresarekin burutzea ebatzi zuen.

Mankomunitate honi dagokio orain, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa sinatu ondoren, Idazkariak 2017ko martxoaren 8an emandako txostenaren arabera proposatu du, aipatu horniketaren beharra dela eta, gas naturalari buruzko kontratua, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Mankomunitate honek kontratatzea beharko duen horniketa zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 17.400 euroko gastua ateratzen da, BEZ barne.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. enpresari esleitzea, sinatutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

LEHENENGO.- GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. enpresari esleitzea, “Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez gas naturalaren horniketa kontratatzeke esparru akordiotik” eratorritako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- Baimentzea eta xedatzea GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. enpresaren alde, aurtengo ekitaldiari dagokion 13.050 euroko gastua, 1.1000.221.920.00.03 kontusailaren kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

Material elektriko hornitzeko kontratazio espedientea; kontratuaren esleipena

Diputatuen Kontseiluaren 2016ko irailaren 27ko erabakiaren bidez onartu zen Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez material elektrikoaren hornidura kontratatzeke esparru akordioa burutzeke kontratazio espedientea.

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazio Departamentuko foru diputatuak, 2017ko urtarrilaren 10eko foru aginduaren bitartez, aipatu esparru akordioa BERDIN, S.L. enpresarekin burutzea ebatzi zuen.

Mankomunitate honi dagokio orain, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin araber, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Mankomunitate honek material elektrikoaren beharra duenean BERDIN, S.L. enpresari esleitzea dagokion kontratu eratorria, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

Bulego materialez hornitzeko kontratazio espediente berriari atxikitzea

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegokion hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, bulego materialez hornitzeko kontratazio espediente berria irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek horniketa honen beharra duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bulego materialez hornitzeko Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.

2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria sinatzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

Telefono komunikazioen espedienteari atxikitzeke erabakia bertan behera uztea

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2016ko abenduaren 20an egindako bilkuran, telefono komunikazioen zerbitzua emateko Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea erabaki zuen, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.

Orain, kontu-hartzaileak atxikimendu honetan atzera egitea proposatzen du, gaur egungo hainbat zerbitzutan eragin dezakeen kalte edo eragozpenak direla eta.

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ERABAKI DU:

- Telefono komunikazioen espedientearen atxikimenduan atzera egitea, Mankomunitateak berak kontratatuz aipatu zerbitzua.

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Papera eta kartoia saltzeko kontratazio espedientea; eskaintza bakarra

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2017ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Mankomunitateak jasotako paper eta kartoia saltzeko kontratazio espedientea eta Administrazio Klausula Partikularren Agiria onartu zituen eta esleitze-prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean hiru proposamen aurkeztu dira:

- SAICA NATUR NORTE, S.L.
- ARREGI ETXABE JUAN JOSE, S.A.
- BIDASOA ECO GESTIÓN, S.L.

Hiru hauetatik bat baztertu egin da, ARREGI ETXABE JUAN JOSE, S.A. enpresak aurkeztutakoa, kaudimen tekniko eta profesionala ez egiaztatzeagatik, enpresa honek aurkeztu duen baimenak Altzaurtin papera eta kartoia kudeatzeko urteko 1.575 tona baimentzen baitu, Mankomunitateak urteko 2.900 tona jasotzen dituenean.

Onartutako beste bi lizitatzailleek 2. gutun-azalean jasotako proposamen ekonomikoak ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak, SAICA NATUR NORTE, S.L. enpresak aurkeztutako proposamena baztertzea proposatzen du, baldintza agirian jasotako eredia funtsean aldatzen duelako, eskainitako zenbatekoan ageriko errorea eraginez, ASPAPEL 1.04.01 prezioa orain ez baita argitaratzen, aurreko hilabetearekiko prezio aldaketa baizik.

Beraz, proposamen bakarra gelditu da, BIDASOA ECO GESTIÓN, S.L. enpresak aurkeztutakoa.

Hau honela izanik, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. BIDASOA ECO GESTIÓN, S.L. enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duen dokumentazioa, eta 13.000 €ko behin betiko bermea aurkezteko.
2. Kontratu honen esleipena, dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.2.- Etxean erabilitako olioia biltzeko kontratazio espedientea; berraztertze-errekurtsoa; prozeduran atzera egitea eta deialdi berria

Gobernu Junta honek, 2016ko abenduaren 20an egindako bilkuran, etxean erabilitako olioia aparte biltzeko edukiontziak bildu, garbitu eta mantentzeko zerbitzua emateko eta ontziz hornitzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Pleguak onartu zituen, eta dagokion esleipen prozedura abiaraztea erabaki zuen.

Lizitazioaren iragarkia argitaratu eta gero, RAFRINOR, SL enpresak errekurtsua aurkeztu zuen kontratatzeko prozedura hastearen eta hori arautzeko pleguen aurka, eta lizitazioa eteteko eskatu zuen, kautelazko neurri gisa.

RAFRINOR, SL enpresak bere errekurtsuan alegatzen duenez, besteak beste, enpresa bakar bat dago lizitazioaren zerbitzua eta hornikuntza egin dezakeenik, hau da, gaur egun zerbitzua egiten ari den EKO3R enpresa, izan ere, berak bakarrik dauka zerbitzua egiteko eta edukiontzien mantentze lanak egiteko edukiontzi-makina mota hori; gainera, berak bakarrik hornitu ditzake horrekin bateragarriak diren ontziak. Ondorioz, betekizun tekniko partikular baten oinarriaren gainean, lizitazioan libreki parte hartzeko oztopoak eraikitzen dira, erabaki hori justifikatuko duen interes publikoko motibaziorik egon gabe.

Berariaz emandako epearen barruan bi proposamen aurkeztu dira, hau da:

- EKO GASTEIZ, SL
- OLIO3R, SL

RAFRINOR, SL enpresak alegatutako egoera hori egiaztatzeko eskatu zitzaizen Ingurumen Zerbitzu teknikoei, eta Zerbitzuko arduradun teknikoak txosten bat idatzi du, zeinean, hainbat kontsulta eta egiaztapen egin eta gero, hau ondorioztatzen den: olioia jasotzeko zerbitzua gaur egun Mankomunitatearen jabetzakoak diren edukiontzien bitartez edozein operadorek modu irekian egin badezake ere, arazoak egon daitezkeela edozein operadorek berdintasun baldintzetan mantentze lanak egiteko eta ontziak hornitzeko, izan ere, bai edukiontzia bai bere ontzi bereziak EKO3R enpresak baino ezin ditu hornitu, patentearen titularra den heinean.

Halaber, ea kalte handiagoak saihesteko helburuarekin, EKO GASTEIZ, SL enpresa lizitatzailerari kontsulta irekia egin zaio, lizitazioaren xede den zerbitzua eta hornikuntza egiteko egon daitezkeen arazoei buruz RAFRINOR, SL enpresak alegatutako arazoien inguruan, eta hark berretsi egin du arazoak daudela edukiontziak mantentzeko eta ontziak hornitzeko, baina ez olio jasotzeko.

Horregatik guztiagatik, kontuan hartuta gaur egun instalatutako edukiontzien ezaugarri teknikoak eta funtzionalak, besteak beste, irisgarritasun baldintzak, herritarrek azken 6 urteotan oso positibo baloratu dituztela, eta kontuan hartuta oso mantentze egoera onean daudela, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, azaroaren 14koaren, 155.4 artikuluan zedatutakoarekin bat etorriz, Gobernu Batzordeak aho batez ERABAKI DU:

1. Etxean erabilitako olioia aparte biltzeko edukiontziak bildu, garbitu eta mantentzeko zerbitzua emateko eta ontziz hornitzeko prozedura indargabetzea; lizitazioaren iragarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 18an.
2. Lizitazio prozedura berri bat irekitzea, soilik etxean erabilitako olioia jasotzeko eta edukiontziak garbitzeko zerbitzua emateko eta, horretarako, kontratazio espediente berria eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Plegu berriak onartzea.
3. Erabaki hau lizitatzailerari guztiei jakinaraztea eta Kontratatzaileraren Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iraitz Lazkanok esan du txosten tekniko bat komeniko litzatekeela gaur egungo edukiontzien bidez egindako bilketa sistema eta beste edukiontzien bidez egindakoa konparatuz.

3.3.- Hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko CESPÁ, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A. enpresarekin sinatutako hamabigarren aldaketa

2013ko urriaren 1ean izenpetu zen CESPÁ COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, SA enpresarekin Mankomunitateko udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua egiteko kontratua, eta orain kontratu hori aldatzeko hamabigarren espedientea izapidetu da. Hamabigarren aldaketa honen arazoia da hondakin organikoak eta errefusa uzteko puntuak aldatu egin direla.

Aldaketaren espedientean kontratistari entzuteko ezarritako epearen barruan, kontratistak idatzi bat aurkeztu du esanez ez dagoela arazoi nahikorik aldaketarako eta esleipendunak egin beharreko zerbitzua eta zerbitzu horregatik Mankomunitateak ordaindu behar dion prezioa Mankomunitateak bakarrik finkatu dituela, eta Mankomunitateak proposatzen duen zerbitzuaren berrantolaketa ez direla aintzat hartzen zerbitzuari atxikitako langileen lan baldintzei lotutako konpromisoak.

Ondorengo kontsiderazioak kontuan hartuta:

Lehenengo alegazioari dagokionez, hau da, aldaketarako arrazoi nahikorik ez egoteari eta esleipendunak egin beharreko zerbitzua eta zerbitzu horregatik Mankomunitateak ordaindu behar dion prezioa alde bakarrak, Mankomunitateak, finkatzeari dagokionez.

1.- Ingurumen Zerbitzuaren arduradunaren hasierako txostenean –txostena espedientean jasota dago eta bere kopia CESPAn enpresari bidali zitzaion–, zabal jasotzen da kontratuaren hamabigarren aldaketarako zioa, eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak Mankomunitateari bidalitako idatziaren kopia bat atxikita dauka. Idatzi horretan, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak Mankomunitateari jakinarazten dio 2017ko otsailaren 28tik aurrera ez duela baimenik izango hiri hondakinen Transferentzi Estazioaren jarduera garatzeko Arrasateko Meatzerrekako 27an, izan ere, Udalak baimena luzatzeko eskaera atzera bota du; beraz, Debagoieneko hondakinak Elgoibarko Transferentzia Estaziora garraiatu beharko dira.

Txostenean, Zerbitzuaren arduradunak berariaz adierazten du 2017ko martxoaren 1ean sartuko dela indarrean esandako aldaketa, eta adierazten du, halaber, aldaketak berez dioena, hau da, errefusa Elgoibarko Transferentzi Estazioan entregatu beharko dela eta hondakin organikoak, berriz, Epeleko Konpostaje Plantan, asteleheneko 00:00etatik asteazkeneko 24:00etara bitartean. Era berean, eta Mankomunitateak aldaketaren berri eduki bezain laster, ahoz jakinarazi zitzaien CESPAn enpresako ordezkariari aldaketaren premia.

Kontratuaren hamabigarren aldaketa proposamenarekin batera doan idatzian, non kontratistari entzuteko epea ezartzen baita, berariaz jasotzen da, baita ere, aldaketaren arrazoiak dela hondakin organikoak eta errefusa entregatzeko puntuak aldatu direla eta aldaketa hori Mankomunitateari ezarri zaion obligazioa dela.

2. 3. eta 4.- Mankomunitateak kontratuaren aldaketa guzti-guztien ezarpen aldiko lehen 3 hilabetetan aplikatu beharreko prezioak ezarri ditu, Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 23. klausulan ezarritakoaren arabera. Ezarpen bakoitzaren hasieran, bilketa bideak, lantaldeen osaera eta bilketa bide bakoitzaren denborak finkatu ditu, besteak beste, CESPAn enpresaren onespenerarekin, eta hala jasotzen da izapidetutako aldaketa espedienteetan.

Ez da ulertzen orain CESPAn enpresak aldaketak ezartzeko eta prezioak finkatzeko sistema zalantzan jartzea, izan ere, Administrazio Klausula Partikularren Pleguan jasota dago eta, gainera, CESPAn ez du inoiz desadostasunik agertu, ez bere egunean, ez eta pleguak onartu eta hitzarmena, pleguak barruan sartuta, izenpetu zen egunean ere.

Egia da, bai, ez dela oraindik kontratuaren behin betiko preziorik itxi, aldaketa guztiak ezarrita hiru hilabete igaro ondoren, nahiz eta alde bietan bat baino gehiago egin duten. Horregatik, ibilbide bakoitza egiteko beharrezkoak diren denboren gainean alde bien arteko adostasunik ez dagoenez, Mankomunitateak abiaraziko ditu Mankomunitatearekin eta kontratistarekin zerikusirik ez duen hirugarren enpresa ikuskatzaile bat kontratatzeke izapidetutako, ahalik eta lasterren ibilbideak aztertu, beharrezko neurketak egin eta Mankomunitatearen eta kontratistaren proposamenak aztertzeke, azkenean ibilbide bakoitzaren denbora estandarrik, taldeen osaera eta, finean, zerbitzuaren behin betiko dimentsionamendua erabakitzeko, Administrazio

Klausula Partikularren Pleguaren 23. klausulan ezarritakoaren arabera. Horrekin guztiarekin, kontratuaren behin betiko prezioa finkatu ahal izango da, esleitutako unitateko prezioetan oinarrituta.

Aldaketa honetan zerbitzua emateko denborak kalkulatzeko Mankomunitateak erabili dituen parametroei dagokienez, aurreko aldaketa guzti-guztietan eta CESPAn enpresaren onespenearekin erabilitakoak berak dira.

Bigarren alegazioari dagokionez, hau da, Mankomunitateak proposatzen duen zerbitzuaren antolaketa berriak ez ditu kontuan hartzen zerbitzuari atxikitako langileen lan baldintzei lotuta Mankomunitateak berak hartutako konpromisoak.

Argitu behar da Mankomunitateak ez duela konpromiso bat ere hartu zerbitzu honi atxikitako CESPAn langileen lan baldintzei dagokienez, izan ere, Mankomunitateak ulertzen du enpresa kontratistaren langileen kudeaketa enpresari berari baino ez dagokiola, enpresa antolatu, planifikatu eta zuzentzeko duen ahalmenaren baitan dagoen zerbait da eta.

Kontratistaren entzunaldi epea bukatu ondoren, CESPAn enpresak beste idatzi bat aurkeztu du aldaketa honetan jasotako denborak zehazteko aplikatutako faktore zuzentzaileak zalantzan jarriz.

Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoak, idatzi honi erantzunez egindako txostenean esaten da aldaketa honetako denbora eta faktore zuzentzaileak berraztertu direla, zenbait faktore eta denbora doituz, eta doikuntza hauen ondorioz, denbora eta zerbitzu prezioak ezarri direla, 2.770.067,90 €tan urteko finkatuz.

Bukatzeko, eta kontuan hartuta Mankomunitateak hamabigarren aldaketa ezartzeko epea langileen baldintzak zerbitzuaren aldaketara egokitu ahal izateko laburregia dela esanez CESPAn aurkeztu duen alegazioaren aurrean Arrasateko Udalari eskatu diola hiri hondakinen Transferentzi Estazioaren jarduera Arrasateko Meatzerreka 27an garatzeko baimena luzatzeko, eta Arrasateko Udalak eskaera onartu eta baimena luzatu duela aldaketa hau izapidetzeko behar-beharrezko denboraz.

Aldaketa espedientea ikusita, Gobernu Juntak aho batez ERABAKI DU:

- 1.- Mankomunitate honetako udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua egiteko kontratuaren hamabigarren aldaketa, proposamenean zehaztutako terminoetan onartzea, beranduenez 2017ko maiatzaren 1ean ezartzen hasteko.
- 2.- Kontratuaren prezio berria onartzea, hau da, 2.770.067,90 €-ko prezioa urtean, gehi BEZa.
- 3.- Behin betiko bermea egokitzea 4.715,57 €-tan.
- 4.- Aldaketa honek dakarren zerbitzuaren gainkosteak Gipuzkoako Hondakinen Kontsultorioari eskatzea.

Ondoren, Landerrek, Hondakinen Kudeaketa Batzordeko lehendakariak kontratu honen egoeraren berri eman du.

Ikusirik ez dela oraindik kontratuaren behin betiko preziorik itxi, aldaketa guztiak ezarrita hiru hilabete aspaldi igaro arren, ez baitago ibilbide bakoitza egiteko beharrezkoak diren denboren gainean alde bien arteko adostasunik, Gobernu Juntak, kontratu honen Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 23. klausulan ezarritakoa betez, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1.- Publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez hondakin bilketa ibilbideak aztertu, beharrezko neurketak egin, Mankomunitatearen eta kontratistaren proposamenak aztertu, eta azkenean ibilbide bakoitzaren denbora estandarrak, taldeen osaera eta zerbitzuaren behin betiko dimentsionamendua finkatzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Plegua onartzea, ondorengo enpresak gonbidatuz:

- LKS S.COOP.
- MTM INGENIEROS PARA LA MEJORA CONTINUA, S.L.
- OPE CONSULTORES, S.L.
- SAYMA CONSULTORES, S.A.

2.- Gaur egungo kontratuaren indarraldia 2017ko irailaren 30ean bukatzen denez, etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko lizitazio berria ateratzeko Baldintza Agiriak eta gainontzeko dokumentazioa prestatzen hastea.

3.4.- Hondakin arriskutsuak kudeatzeko kontratazio espedientea

Gai hau mahai gainean uztea erabaki da.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa

- **Fidantza bat bueltatzea; A.I.A. (COGNILAND, S.A.)**

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedientea ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengo ERABAKI DU:

- A.I.A. ekintzaileari bere egunean jarritako 352,02 €ko fidantza bueltatzea.

- **Itxaron zerrendako eskaera berri bat; Z. A. J.**

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroan zerbitzu modulu bat libre gelditu denez, eta itxaron zerrendan honako eskaera hauek daudenez, lortutako puntuazio ordenan:

1.- Z. A. J. (Enpresa Aholkularitza) (Enpresei, langileei eta langabetuei bideratutako aholkularitza eta prestakuntza) 2016ko abenduko batzordean baloratutako eskaera. Lortutako puntuazioa: 36 puntu.

2.- S. I. G. (Shakti Reiki Kontsulta) (Reikiren kontsulta). 2016ko abenduko batzordean baloratutako eskaera. Lortutako puntuazioa: 25 puntu

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- Z. A. J. andreari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (7-ZM) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

17/05.- Mankomunitate honetako udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko CESP, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A. enpresarekin 2013ko urriaren 1ean sinatutako kontratua aldatzeko 12. espedientea irekitzea, dagokion aldaketa proposamena prestatuz.

17/06.- Informatzaileen lan poltsa erabiliz, urtebeterako, 2017ko otsailaren 1etik 2018ko urtarrilaren 31 arte, ondorengo bitarteko izendapenak egitea:

- O. I. A., A. E. E. eta M. I. F. Mankomunitateko Hondakinen Informazio Bulego zentralizatuan aurrez-aurreko zein telefono bidezko arreta eskaini eta udalerrietako informazio bulegoak koordinatzeko. Hondakin bilketari dagozkion ikuskaritza lanak indartu, osatu eta

koordinatzeko eta hondakin bilketa kontratuko prezioak ixteko eta kontratuaren aldaketa optimizatua edo kontratu berria gauzatzeko GPS bidezko ibilbideak aztertu, landu eta sortzeko lanetan laguntzeko.

Hileko 2.070,50 €ko ordainsari gordina emango zaio, honela banatuta:

- Soldata: 713,13 €. (C1)
- Lanpostu mailako osagarria: 374,82 €. (17)
- Berariazko osagarria: 982,55 €.

17/07.- 1.- “Epeleko zabortegian isurketa-gelaxkaren I faseko konfinamendua eta II fasearen egokitzapena eta I fase gaineko EEH-plataformaren proiektua” gauzatzeko obra kontratua CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. enpresari esleitzea 429.732,13 €-ko prezioan, gehi BEZ.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei Gipuzkoako Eraikuntza Sektoreko hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaie.

17/08.- CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. enpresak aurkeztutako Segurtasun eta Osasun Plana onartzea, Segurtasun eta Osasunaren koordinatzaileak bere txostenean ezarritako baldintza eta aholku guztiekin.

17/09.- 17/01 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA ETA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMO (272.074,52 €).

17/10.- 17/02 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA HAMAR MILA EHUN ETA HOGEITA HEMERETZI EURO ETA HAMALAU ZENTIMO (110.139,14 €).

17/11.- 17/03 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA LAU EURO ETA HAMAZORTZI ZENTIMO (944,18 €).

17/12.- J. O. G. kontratatzea J. E. txoferraren ordezkapena egiteko otsailaren 8tik 10era arte, senide baten ospitaleratzea dela eta. Txofer lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

17/13.- 1.- A. A. G. kontratatzea otsailaren 13tik aurrera haizeak edukiontziekin eragindako arazoak konpontzen laguntzeko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- M. A. E. kontratatzea M. S. Garbiguneko zainzailearen ordezkapena egiteko otsailaren 14an goizez. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

17/14.- 17/04 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERROGEITA ZORTZI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMO (48.547,27 €).

17/15.- 1.- CESPAS, SA enpresari espedientean dagoen dokumentazioaren kopia osoa bidaltzea.

2.- Alegazioak aurkezteko epea luzatzea ukatzea.

17/16.- 17/05 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA HAMAHIRU MILA LAUREHUN ETA HOGEITA ZORTZI EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMO (213.428,85 €).

17/17.- Mondragon Unibertsitatearekin proposatutako lankidetzaren hitzarmenak sinatzea ondoren zehaztutako ikasleek Mankomunitate honetan praktikak egiteko, goian aipatutako proiektuak garatuz.

Ikasleak

- HUHEZI: L. G. E., A. L. A. eta I. G. T.. 2017-03-20an hasi eta 2017/06/16an bukatuz. Ikasketa laguntza 300 €/hileko.
- ENPRESAGINTZA: A. E. S.. 2017-02-20an hasi eta 2017-06-30ean bukatuz. Ikasketa laguntza 500 €/hileko.

Ikasketa laguntza hileroko sartu beharreko orduen arabera da.

Ebazpen honen berri Gobernuko Juntari ematea hurrengo bilkuran.

17/18.- 1.- M. A. E. kontratatzea otsailaren 27an, goizez, Garbiguneko zainzailea den A. L. ren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J. O. G. kontratatzea otsailaren 27an M. L. ren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- J. T. L. kontratatzea martxoaren 8an eta 9an J. D. L. T. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

17/19.- 1.- Mankomunitateko hainbat udalerrietako argiteri publikoan energia aurrezteko LED teknologiako argiak eta ekipamenduak hornitzeko eta instalatzeko kontratuaren loteak ondorengo enpresei esleitzea:

- 1. lotea, hau da, Aretxabaletako argiteri publikoa berritzea, TECUNI, S.A. enpresari, 184.476,69 €-ko prezioan, gehi BEZ (%21).
- 2. lotea, hau da, Arrasateko argiteri publikoa berritzea, ELECTRICIDAD PEROSANZ, S.L. enpresari, 385.269,60 €-ko prezioan, gehi BEZ (%21).
- 3. lotea, hau da, Bergarako argiteri publikoa berritzea, TECUNI, S.A. enpresari, 322.753,38 €-ko prezioan, gehi BEZ (%21).
- 4. lotea, hau da, Eskoriatzako argiteri publikoa berritzea, ELECTRICIDAD PEROSANZ, S.L. enpresari, 259.745,38 €, gehi BEZ (%21).

- 5. lotea, hau da, Oñatiko argiteri publikoa berritzea, LEYCOLAN, S.A.L. enpresari, 58.316,42 €-ko prezioan, gehi BEZ (%21).

2.- Kontratu hauen aurka kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jar daitekeenez, enprekin dagokion kontratua sinatuko da erabaki hau jakinarazi eta hamabost lanegun igaro ondorengo bost eguneko epean.

6.- GALDE-ERREGUAK

- **Oñatiko Udalaren eskaera;** Landerrek, Hondakinen Kudeaketa Batzordearen lehendakariak, jakinarazi du Oñatiko Udalak haize zakarraren eraginez galdutako hondakin bilketako hainbat ontzi erosi dituela, eta Mankomunitateari horien kostea ordaintzeko eskatu diola. Esan du bere asmoa dela oraingoan ordaintzea baina Oñatiko Udalarari jakinaraztea Mankomunitateak erabilgarri dauden ontziak badituela eta, erosi aurretik, hauek erabiltzea komeni dela.
- **Puntaik Punta Jaialdia;** aurreikusita zegoen Bergaran maiatzaren 19-21 aste bukaeran Puntaik Punta jaialdia ospatzea, baina aste bukaera horretan Antzuolan artzain azoka ospatuko denez, data aldatzea komeni da. Bergarako ordezkariak beste data bat proposatzeko gelditu dira.
- **Gobernu Juntaren hurrengo bilera;** apirileko bilera apirilaren 4an egin beharrean 7an egingo da, betiko orduan, 12:30etan.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:00etan, bukatutzat eman da bilkura.